

## Huhezinema jaialdiaren 4. edizioa maiatzaren 11n eta 12an egingo da

2011/01/11

Aurtengo egitaraua aurreko edizioen ildotik joango da. Aurten ere **dokumentalak eta film laburrak** jasoko dira, fikziozkoak eta animaziozkoak. Eta horietatik epaimahaiak **hamar lan onenak** sarituko ditu. Horietaz gain, sariztatuko dira euskarazko lanik onena, film laburrik onena eta publikoaren lanik gustukoena. Hona aurtengo zinemaldiaren oinarriak.

Maiatzaren 11n hitzaldi bat antolatuko da. Horrezaz gain, Ikus-entzunezko komunikazioko 3. eta 4. mailako ikasleen dokumentalak eta film laburrak ikusiko dira. Maiatzaren 12an, berriz, lehiaketa ofiziala egingo da Arkupe Kultur Etxean, Aretxabaletan. Bertan ikusiko dira epaimahaiak aukeratutako 10 filmak eta sariak banatuko dira.

Huhezinema HUHEZIK antolatzen du, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, zehatzago esanda, Ikus-entzunezko komunikazioko ikasle talde batek, 4. mailakoa, **Iban del Campo** irakaslearen zuzendaritzapean. Erakusleihoa izan nahi du Euskal Herrian sortutako ikus-entzunezko produktuentzat. Horregatik, bertan tokia dute zuzendari esperientziadunek eta hasi berriek.

